

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 120/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren 4koa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2026ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietatei, kooperatiba-sozietatei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei. (Oker zuzenketa).

Oker bat sumatu ondoren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2025eko abenduaren 17ekoa, 241. zenbakian, Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 97/2009 Foru Dekretuko 17. artikuluan esaten duenez, jarraian berriz iragarki osoa argitaratzen da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 120/2025 FORU DEKRETUA, abenduaren 4koa, dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen. Dirulaguntza horiek emango zaizkie, hain zuzen ere, 2026ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietatei, kooperatiba-sozietatei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat helburu ezarri ditu, eta helburu horietako bat da euskararen erabilera sustatzea. Hain zuzen ere, euskara gizarte-eremu guztietara zabaltzeko ahalegin horretan, ezinbestekotzat jotzen da informazio eta komunikazioaren teknologien ahalmen handia aprobetxatzea, hizkuntza landu, prozesatu eta zabaltzeko, eta, beraz, beharrezkoa da laguntza-tresna egokiak jartzea gizarte eragileen eskura, arlo honetako egitasmoak garatu eta gauzatzeak eragindako kostuak murrizteko.

Goian adierazitako konpromisoa betetzeko, foru-dekretu arautzaile honen bidez aplikatu nahi dira Euskararen Aholku Batzordeko barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak euskara ingurune digitalean bultzatzeko ezarritako gomendioak.

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak urtero dirulaguntza-lerro bat izaten du Bizkaiko merkataritza-sozietate, kooperatiba-sozietate, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko, banakako enpresaburu eta profesionalei laguntza emateko euskararen erabilera sustatzeko funtsezko lanean.

Euskararen erabilera normalizatzeko Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean oinarritzen da proposatzen den xedapen honi dagokion eskumena; izan ere, lege horrek, zioen azalpenean, ezartzen du Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Agintaritzaren esku uzten dela euskararen erabilpena zabaltzeko eta arauzkotzeko xedezko neurriak hartzea.

Hortaz, 26. artikulua xedatzen du euskal herri-aginteei neurri egokiak hartuko dituztela eta beharrezko bitartekoak jarriko gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzeko, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jarduera guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea gizartearen alor guztietan; hala, osatu egiten da foru dirulaguntzetarako deialdi honen esparru juridikoa.

Halaber, dekretu hau izapidetzean printzipio hauekin bat jarduten da: beharrezkotasuna eta eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna,



lastertasuna eta efizientzia, herritarren parte-hartzea eta kontuak ematea. Izan ere, hala ezartzen dute Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikulua (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua, non printzipio horiek modu orokorrean ezartzen diren. Azkenik, maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzen da, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Bestalde, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezin bestekotzat jotzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna benetan eta eraginkortasunez lortzeko bidean aurrera egitea eta ondore horretarako urte asko daramatza arlo horretan lanean. Ildo horretatik, dekretu honek genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala txertatzen ditu, bai hura lantzean, bai aplikatzean, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan adierazten den bezala. Era berean, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Azkenik, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat, dirulaguntzen dekretu hau prestatzean txosten hauek eman direla:

1. Genero-Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa.
2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioari buruzko txostena.
4. Kontrol Ekonomikoari buruzko txostena.
5. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetakoa gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 41.1 artikulua aukera ematen du dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola haiek onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak aztertutik, honako hau,

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—*Foru-dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onestea*

2026ko ekitaldian euskara ingurune digitalean egon dadin ekoizkinak egiten dituzten Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateei, kooperatiba-sozietateei, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuei, enpresaburu indibidualei eta profesionalei dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira.



AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Erregelamendu bidez garatzeko gaikuntza*

1. Gaitu egiten da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatua, foru-dekretu honetan xedatutakoa garatu, gauzatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Gaikuntza horren barruan sartzen da dagozkion dirulaguntzak ematea.

2. Halaber, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuari ahalmena ematen zaio eskaerak aurkezteko epea luzatzeko, baldin eta dagokion sistemaren edo aplikazioaren ohiko funtzionamendua eragozten duen gorabehera teknikoren bat gertatzen bada, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan aurreikusia.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2025eko abenduaren 4an.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

Ahaldun Nagusia,
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA



**2026KO EKITALDIAN EUSKARA INGURUNE DIGITALEAN EGON
DADIN EKOIZKINAK EGITEN DITUZTEN BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO
MERKATARITZA-SOZietateei, KOOPERATIBA-SOZietateei, IRABAZI-ASMO-
RIK GABEKO PERTSONA JURIDIKO PRIBATUEI, ENPRESABURU INDIBIDUALEI
ETA PROFESIONALEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO
OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA**

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea*

1. Foru-dekretu honen arabera, dirulaguntza jaso dezakete euskarak ingurune digitalean duen presentzia sustatzen laguntzen duten proiektuek, Euskararen Aholku Batzordearen barruko Ingurune Digitalean Batzorde-atal Bereziak euskara ingurune digitalean bultzatzeko ezarritako gomendioen arabera. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak dokumentu horretan ezarritakoa hartu baitu arlo horretako gidalerro nagusi legez. Horretara, bada, foru-dekretu arautzaile honen bidez, honako proiektu hauek diruz lagundu ahal izango dira:

- a) Zerbitzu anizkoitzeko euskarazko atari eta webgune berriak, web bidezko parte-hartze eta komunikaziorako edukiak egitea, eta komunitate birtualak sustatzea helburu duten egitasmoak, eta 2026a baino lehen sortutako atari edo webguneak eduki eta zerbitzuez elikatzea helburu dutenak. Berariaz baloratuko dira webetarako sortutako ikus-entzunezkoak sustatzen dituztenak, eta, bereziki, gazteen eta nerabeen aisialdira zuzendutakoak.
- b) Euskaraz dauden gailu mugikorretarako aplikazioak, bideo-jokoak eta ordenagailuetan erabiltzeko ekoizkinak, baita, ordenagailuetan edo gailu mugikorretan erabiltzekoak ez izan arren, euskaraz eginiko softwarea behar duten bestelako ekoizkinak ere.
- c) Euskal kulturaren ondarearen gainean euskaraz dagoen informazioa digitalizatu eta zabaltzea. Euskarazko multimedia eduki berriak sortzea euskarri fisiko batean (CD, DVD, eta abar) argitaratzekoak baldin badira edota eduki hauen zabalkunderako soilik sortutako web bidez argitaratzen badira.
- d) Softwarea euskaraz sortzea edo euskarara lokalizatzea helburu duten proiektuak.

Dirulaguntzarako eskabidean aurkeztutako proiektuak 2026ko ekitaldiaren barruan garatu beharko dira eta publikoari zabalik edo merkatuan eskuragarri egon behar dute urtea bukatu aurretik.

Proiektuak, euskaraz ez ezik, beste hizkuntza batzuetan ere garatzen badira, euskarazko edukiak eta edukioi dagozkien gastuak bakarrik izango dira laguntza-gai.

Edozein motatako diskriminazioa eragiten duten jarduerak edo proiektuak, tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera, inondik inora ez.

2. Aroak —euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko marko estrategikoak— ezarritako ardatz, erronka, lan-ildo eta ekimenekin bat ez datozen proiektuak ez dira diruz lagunduko. Horrez gainera, honako hauek ere ez:

- a) Ahotso euskaraz ezagutu eta sintetizatzen jotzen duten ekoizkinak.
- b) Autoretza eta ediziorako lanabesak (zuzentzaile ortografikoetan eta gramatikaletan dautzanak).
- c) Itzulpenari laguntza emateko tresnak (berbarako, hiztegi elektronikoak eta terminologi datutegiak).
- d) Itzulpen automatikorrako sistemak, eremu telematikoan arabera eta testu moten arabera moldatutakoak.
- e) Analisisirako oinarritzakoak diren tresnak, aplikazio zehatzak alde batera lagata.



- f) Multimedia sistemak, euskara ikasteko direnak.
- g) Software-aplikazioak, baldin eta beren helburua bada hiztegi elektronikoak, zuzentzaile ortografikoak eta sinonimo hiztegiak ezartzea ofimatika-aplikazioetan.
- h) Tokian tokiko lurreko telebista digitalak zein irratiak.
- i) Streaming bidez garatzen diren edo ikus-entzunezko plataforma digitaletarako ekoizten diren programak, filmak eta telesailak.
- j) Alderdi politiko, hauteskundeetarako koalizio, sindikatu, giza mugimendu, gobernu kanpoko erakunde nahiz lanbide-elkargoen egitasmoak.
- k) Elkarte, fundazio zein enpresek beren bazkideentzat edo langileentzat soil-soilik garatutako egitasmoak. Halaber, korporatiboak diren proiektuak.
- l) Atari eta webgune pertsonalak.
- m) Atari eta webgune puntualak (gertakizun, ekitaldi edo jardunaldi jakin baten inguruan beren-beregi antolatutakoak, euskararekin zuzeneko lotura izanik ere).
- n) Demoak eta prototipoak.
- ñ) Eduki iraingarria edota pertsonen eskubideen aurkakoa duten egitasmoak.
- o) Sexu bien arteko tratu-berdintasuna bermatzen ez duten edo sexuagatik diskriminatzen duten proiektuak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntza jasotzen duten proiektuek ez dute hizkera sexistarik erabiliko, garatzen ari diren bitartean, ez zuzenean, ez beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan).

- o) Aurretiaz eginiko ekoizkinak euskaratzeko proiektua bada, salbu eta foru-dekretu honetako 1. oinarriko 1. apartatuko d) letran ezarritako ekoizkinen kasuan.
- p) Albiste orokorrak zabaltzea xede duten eta publiko orokorrari zuzenduta dauden internet bidezko hedabideak.
- q) Online-dendak eta salerosketarako plataformak.
- r) Eusko Jaurlaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak berak euskara hutsezko komunikabideen aldeko etorkizuneko ekintza-ildoak ziurtatzeko sinatutako hitzarmenaren esparruan, Bizkaiko Foru Aldundia ez den beste administrazioen baten dirulaguntza jasotzen duten edo jaso dezaketen komunikabideen proiektuak (idatzizkoak edo digitalak). Ildo horretan, ezin izango da foru-dekretu arautzaile honen dirulaguntzarik jaso baldin eta dirulaguntza hauek jaso badira: aipatutako hitzarmenaren esparruan administrazio horietako edozeinek emandakoak, edo Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat eremutan euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko proiektuak diruz laguntzeko aldizka egiten dituen deialdien barruan emandakoak.
- s) Lehen oinarriaren 4. puntuaren arabera, autofinantzaketa mailara iristen ez diren proiektuak.

3. Diruz laguntzeko gastutzat joko dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, guztiz beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten direnak, baina dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eskuraketa-kostua ezin da inola ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Gainera, enpresa onuradunak merkataritza-eragiketetan egindako gastu diruz lagunduak nahitaez berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira.

Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:

- a) Egile-eskubideen erosketaren ondorioz egindakoak.



- b) Ibilgetu materialean egindako inbertsioak.
 - c) Aurretiaz euskara ez den beste hizkuntza batean garatutako atari edo webguneari eta softwareari dagozkion gastuak.
 - d) Zeharkako tributuak (BEZa barne) ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaitezke. Kasu horretan, gastuen zenbatekoek BEZik gabe agertu behar dute, hala eskabidean agertzen den aurrekontuan, nola dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztuko den aurrekontu gauzatuan. Era berean, ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak errentaren gaineko zerga pertsonalak.
 - e) Oro har, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 29. artikuluekin bat etorrira, beren-beregi kanpo utzitakoak.
4. Foru-dekretu honen helburua da eskatzaileen ekintzak lagundu eta osatzea; ez dira ezein kasutan finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak. Beraz, ondoren adierazten diren finantzaketa-mugak bete beharko dira. Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek proiektu bakoitzaren finantzaketaren %35 hartuko dute beren gain, gutxienez; gainerako pertsona eta entitate onuradunek, berriz, %45. Autofinantzaketa-maila horretara iristen ez diren egitasmoek ez dute laguntza-deialdian sarbiderik izango, eta, horren ondorioz, kanpoan utziko dira.

Autofinantzaketa maila honako diru-sarrerara hauez osatuta egongo da:

- a) Eskatzailearen diru-ekarpenak.
- b) Zerbitzu-salmentatik eskuratutakoak.
- c) Produktu-salmentatik eskuratutakoak.
- d) Publizitatetik eskuratutakoak.
- e) Entitate pribatuetatik jasotakoak.

2. oinarria. — *Pertsonak edota entitate onuradunak*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko merkataritza-sozietateak, kooperatiba-sozietateak, irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoak, enpresaburu indibidualak eta profesionalak izan daitezke foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen onuradun, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako egoeretako batean ez badaude, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza soziala Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
- b) Dagokien erregistroan izena emanda egotea, hala badagokio.
Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira betekizun horiek guztiak. Halaber, prozeduran zehar ere bete behar dira, dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu arte.
- c) Era berean, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikatu behar zaien pertsona fisiko edo juridikoek egiaztatu beharko dute ordainketa-epeak betetzen dituztela baldin eta dirulaguntzen deialdi honen babesean eta aurkeztutako proiektu guztien ondorioz 30.000 eurotik gorako zenbatekoa eskatzen badute.

2. Halaber, honako pertsona fisiko eta juridiko hauek ezin izango dute dirulaguntzak emateko prozesu honetan parte hartu eta onuradun izan baldin eta:

- a) Sexuarengatik edonolako diskriminaziorik sortzeagatik edo berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia ez betetzeagatik, zehapen administratibo, laboral edo penalen bat jaso dutenak, zehapenean ezarritako epean zehar.
- b) Beren helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea edo estatutuak emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurkakoak badira.
- c) LGTBI pertsonen eta beste kolektibo batzuen diskriminazioa egiteagatik zehapen administratibo edo penala jaso izana, dagokion zehapenean ezarritako al-dian, edo tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko indarreko araudia ez betetzeagatik.



- d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudian ezarritako baldintzetan, berdintasun-planak eta sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta halakoei aurre egiteko neurriak jasotzen dituzten protokoloak eta/edo dokumentuak izateko betebeharra bete ez dutenak.
3. Foru-dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geldituko dira ondarean administrazio edo fundazio publiko baten edo batzuen partaidetza duten entitateak, unibertsitate publikoak, banku-fundazioak eta administrazio publikoetako ordezkariak patronatuko kide dituzten fundazioak (dagokion administrazioa ordezteko betetzen dutenean kargu hori).

II. TITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

3. oinarria. — *Araudi aplikagarria*

Foru-dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea, 4/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala arautzen duena, 311/2022 Errege Dekretua, maiatzaren 3koa, Segurtasuneko Eskema Nazionala arautzen duena eta beste edozein xedapen arauemaile, berak duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua erakunde pribatu hauei aplikatuko zaie: aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren 100.000 euroko edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituztenei edo haien urteko diru-sarreraren %40 Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez 5.000 euro badira.

4. oinarria. — *Arau-haustek eta zehapenak*

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduko IV. tituluan xedatutakoa ere.

III. TITULUA

PROZEDURA

5. oinarria. — *Eskabideak aurkezteko lekua eta epea*

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluen arabera, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Egoitza elektronikoko izapideen katalogoan dago foru-dekretu honen laburpen-fitxa.

2. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 12an hasiko da eta 2026ko otsailaren 9ko 13:30ean amaituko da.

6. oinarria. — *Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta betekizunak*

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkezteko dauden eredu ofizialak erabili behar dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat:

<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>

Entitate batek baino gehiagok elkarlanean gauzatzekoak diren egitarauen kasuan, zehaztu beharko da aurrekontuan zein den entitate bakoitzak egiten duen ekarpena eta



zein gastu hartzen dituen bere gain; eskabidea, betiere, entitate batek aurkeztuko du, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera. Horrela egiten ez bada, eskabide horiek ezetsi egingo dira.

Eskabide bakoitza proiektu bakarrari buruzkoa izan behar da.

2. Honako dokumentazio hau erantsi beharko da:

- a) Estatutuak eta egoitza sozialaren ziurtagiria.
 - b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria, hala badagokio.
Aurreko a) eta b) letretan aipatutako dokumentazioa bakarrik aurkeztu beharko da baldin eta ez bada aurretiaz aurkeztu foru-aldundi honetako Euskara Zerbitzuan eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan; izan ere, kasu horretan, zehaztu beharko da zein egunetan aurkeztu zen.
 - c) Proiektuaren azalpena. Azalpenak honako hauek jaso behar ditu: proiektuaren izena, proiektuaren azalpen orokorra, erabiltzaile batek proiektua erabiltzeko izan behar duen euskara maila (oinarrizkoa, aurreratua, etab.) eta euskarak proiektuaren barruan duen presentzia (sinbolikoa ala erabatekoa), eta proiektuak izango duen zabalkundearen edo proiektuak izango duen oihartzunaren aurreikuspena. Halaber, aurkeztu behar da lehenengo hiru urteetan proiektuak izan ditzakeen gastu eta sarreraren (zuzenak edo zeharkakoak) aurreikuspena. Proiektuaren xedea baldin bada aurreko deialdietan garatu den produktu bat hobetzea, mantentzea edo moldatzea, orduan argi eta garbi zehaztu beharko dira deialdi honen barruan sartu nahi diren lanak.
 - d) Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko proiektuaren edukiari buruzko justifikazio txostena (proiektuan parte-hartzea, proiektuaren zabalkundea eta ebaluazioa, sexuaren arabera datuak bereizita jasotzea, ezarritako estereotipo eta rolek haustura eta abar).
 - e) Entitate eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan edo jarduketetan eginiko ibilbideari buruzko azalpen txostena (berdintasun-plan eta -neurriak, gobernu-organoaren osaketa, egindako jarduerak eta abar).
 - f) Legezko edo borondatezko ordezkaritza zuzenbidean baliozkoa den edozein bi-tartekoren bidez egiaztatu beharko da.
3. Halaber, bete beharko dira honako datu hauek:
- a) Proiektua garatzeko eskura diren baliabide ekonomikoak: sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza; bertan adieraziko dira aurkeztutako proiektua gauzatzeko eskatzaileak jarriko dituen finantza-baliabideak.
Era berean, proiektuak entitatearen jarduera osoarekiko dakarren gutxi gorabeherako portzentajea adierazi behar da.
 - b) Merkaturatze-plana, honako hauek zehaztuz: proiektu honi esker eskatzaileak sarrera ekonomikoak jasotzea espero duen; etekinak lortzeko modua (produktuaren salmenta, sorkuntzaren jabetza-eskubideak, web-orrietan sartutako publikitate, zerbitzu bat eskaintzea, edo beste moduren bat); 2026, 2027 eta 2028ko sarreraren-aurreikuspena; eskatzaileak proiektu honi esker ekonomikoak ez diren beste mota batzuetako onurak eskuratzea espero duen; hala bada, zein diren zehaztu behar dira, eta onura horiek neurgarriak baldin badira, 2026, 2027 eta 2028ko aurreikuspena egin behar da. Horretarako, egoitza elektronikoan dagoen eredia bete beharko da.
 - c) Foru-dekretu honetako 1. oinarriko 1. apartatuko a) letran ezarritako proiektuei dagokienez, euskarazko atari edo webgune horiek guztiek etengabe eguneratzeko plangintza eduki beharko dute. Atari edo webguneko zerbitzu guztiak ikusteko baimen bereziak behar diren kasuetan, eskatzaileak aukera teknikoa emango dio Euskara Zerbitzuari edukiok ikusi eta ebaluazioa egin ahal izateko. Halaber, agerian edo ezkutuan egongo den bisita-neurgailua eduki behar dute. Ezkutuan bada, eskatzaileak aukera teknikoa emango dio Euskara Zerbitzuari bisita-neur-



gailuaren emaitzak ikusi ahal izateko. Horretarako, egoitza elektronikoan dagoen eredia bete beharko da.

- d) Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aplikagarri zaien pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta, dirulaguntzen deialdi honen babesean aurkeztutako proiektu guztiak kontuan hartuta, 30.000 eurotik gorako zenbatekoa eskatzen badute, erantzukizunpeko adierazpen bat bete beharko dute beren merkataritza-eragiketetan ordainketa-epeak betetzen dituztela egiaztatzeko, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredian, hala ezartzen baita 2.1.c) oinarrian.

4. Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko 2. artikulua aintzat harturik, adierazi beharko da zein diren erakundeak urtean aurreikusten dituen diru-sarrera guztiak.

7. oinarria. — Dokumentazio egiaztagarria

Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarreragingarritasun Nodoa erabilita, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Euskara Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administrazioarako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira.

Datu horiek honako hauek dira:

- a) Banku kontuaren titulartasun datuak.
Eskatzaileak uko egiten badio administrazioak bere bitartekoak erabiliz bankuko datuak egiaztatzeari, kasu horietan bakarrik, banku-helbideratzearen fitxa behar bezala beteta aurkeztu beharko da.
- b) Pertsona fisiko enpresaburuen eta profesionalen kasuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- c) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- d) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Euskara Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin, baita Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin ere.

8. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, orduan errekerimendua egingo zaio entitate interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan; hala egiten ez badu, adieraziko zaio eskabidean atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskabidea artxibatu egingo dela.

2. Edonola ere, Euskara Zerbitzuak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztzen diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko.

9. oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura

Dirulaguntzak norgehiagoka sistema erabiliz, hau da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituen epaimahai kalifikatzaile bat eratuz emango dira; epaimahai horrek, 10.



oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen arteko lehentasun-ordena ezarriko du, eta foru dirulaguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontu-partidan ezarritako zenbatekoa muga izanik.

Ondorioz, aurrekontu-partida horren mugak eragozten badu 10. oinarriko 2. paragrafoko epaimahai kalifikatzaileak ezarritako gutxieneko puntuazioa lortu duten eskabide guztiei foru-dirulaguntzak esleitzea, puntuazio handiena dutenei esleitzea proposatuko da, eskabide bakoitzaren lehentasun-hurrenkerari jarraituz, dagokion zenbatekoa agortu arte.

Era berean, zenbait eskabidek lehentasun-ordena bera badute puntuazio bera lortu dutelako, eta puntuazio handieneko eskabideei dagozkien dirulaguntzak esleitu ondoren, haietarako dagoen zenbatekoa ez bada iristen dagozkien dirulaguntzen guztizko zenbatekoari erantzuteko, hauei aplikatutako dirulaguntzaren ehunekoa murriztuko da, harik eta erabilgarri dagoen zenbatekoa agortu arte.

10. oinarria. — Ebaluazio-irizpideak

1. Dirulaguntzetarako eskabideak ebazteko proposamena egiteko eta dirulaguntzen zenbatekoa ezartzeko, epaimahai kalifikatzaileak, proiektuaren izaera kontuan hartuta, honako irizpide hauek erabiliko ditu, bai eta berorien haztapena ere. Haztapena 100 puntukoa izango da, gehienez, eta honetara egingo da:

- a) Ingurune digitalean euskararen erabilera sustatzeko eragingarritasuna (eman beharreko kopuru osoaren 20 puntu emango dira gehienez).
- b) Proiektuaren izaera berritzailea eta zabalkunde-maila (eman beharreko kopuru osoaren 10 puntu emango dira gehienez).
- c) Proiektuaren osotasuna, eguneratze-plana eta softwarearen lizentzia (eman beharreko kopuru osoaren 25 puntu emango dira gehienez).
- d) Edukiaren kalitatea: erkidego birtualen sustapen-maila; erabilitako teknologiaren berrikuntza; edukiak —berdintasuna eta indarkeria-eza sustatzea, taldeko lana bultzatzea, psikomotrizitatea eta adimena lantzea, euskara hobetzeko balio izatea... — (eman beharreko kopuru osoaren 25 puntu emango dira gehienez).
- e) Proiektuaren balizko hartzaileen izaera eta haren erabilera-maila (eman beharreko kopuru osoaren 10 puntu emango dira gehienez).
- f) Proiektuak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko duen edukia (eman beharreko kopuru osoaren 5 puntu emango dira gehienez).
- g) Entitate eskatzaileak emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiketan edo jarduketetan eginiko ibilbidea (eman beharreko kopuru osoaren 5 puntu emango dira gehienez).

2. Proiektuak aztertu ondoren, epaimahai kalifikatzaileak gutxieneko bi puntuazio ezarriko ditu pertsona eta/edo entitate onuradunen kategoria bakoitzerako.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko jardueraren aurrekontua hartuko da oinarri. Aldez aurretik, behar izanez gero, konputatu ezin diren gaindikinen arazketa egingo da, eta deialdiaren xede diren objektuarekin zuzenean lotu gabeko gastuak kendu egingo dira.

4. Aurrekontuko partida bakoitzean ezarritako zenbatekoa, hau da, pertsona eta/edo entitate onuradun mota bakoitzari 21. oinarrian esleitzen zaiona, proportzionalki banatuko da, proiektu bakoitzak eskuratutako puntuazioaren arabera; betiere, oinarri honetako 2. zenbakian ezarritako gutxieneko puntuazioa eskuratu ez dutenak baztertu ondoren.

5. Proiektu bakoitzari ematen zaion dirulaguntzaren mugari dagokionez, talde bi ezarri dira, pertsona edo entitate onuradun motaren arabera. Irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuen kasuan, proiektu bakoitzari adjudikatutako dirulaguntza ezin da izan aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %35 baino handiagoa. Hala ere, ezin da izan hogeita hamar mila eurotik (30.000 euro) gorakoa, ez eta mila eurotik



(1.000 euro) beherakoa ere. Gainerako pertsona eta/edo entitate onuradunen kasuan, proiektu bakoitzari adjudikatutako dirulaguntza ezin da izan aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %25 baino handiagoa. Hala ere, ezin da izan hamazortzi mila eurotik (18.000 euro) gorakoa, ez eta bi mila eurotik (2.000 euro) beherakoa ere.

Ez da emango talde bakoitzari ezarritako gutxieneko mugatik beherako zenbatekorik; horren ondorioz, egoera horretan dauden proiektuak ezetsi egingo dira.

6. Behin eskabideen hurrenkera ezarri eta gero, entitate hautagaien gaindikinak gainerako entitate onuradunen mesederako izan ahal izango dira, eta gaindikin hori oinarri honen 4. atalean ezarritakoa betez banatu ahal izango da.

7. Defizitarioak diren egitasmoei bakarrik eman ahal izango zaizkie foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzak. Hots, aurreikusitako gastuak, eskatzaileak ezinbestean jarri beharreko finantzaketa propioarekin berdindu ezin dituzten egitasmoei. Deialdira bildu, baldintza guztiak bete, ebaluazio-irizpideak jarri eta diruz lagundu beharreko egitasmo bakoitzari esleitu beharreko dirulaguntza, gehienez ere, Euskara Zerbitzuari eskatutako kopurua izango da.

11. oinarria. — Aholkularitza

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru-dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko; horretarako, foru-webgune hau erabili ahal da:

www.bizkaia.eus/laguntzaileEuskara

12. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea

1. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuak izendatuko ditu, foru-agindu bidez.

Epaimahai hori osatzen duten pertsonak behar besteko gaitasun teknikoa, administratiboa, funtzionala eta zuzendaritzakoa izango dute eskabideetan eskatzen diren betekizunak behar bezala baloratzeko eta deialdi honen xede diren proiektuak baloratzeko.

Halaber, izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak, dirulaguntzak adjudikatzeko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan.

13. oinarria. — Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran jaso eta kontuan hartuko diren bakarrak interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak baitira.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Euskara Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzailerak egunean dituen zerga-betebeharra eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzaileraren batek ez duela betetzen betebehar horietako edozein, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, behin ebazpena emanda.

3. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Ebazpena Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuak emango du, epaimahaiak egindako proposamena kontuan hartuta.



Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta jakinarazpenaren ondorioak sortuko ditu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita. Halaber, interesdunei jakinaraziko zaie.

Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duela eta interesdunak errekurtsio hauek jar ditzakeela: foru-agindu horren aurka ausera berraztertze-errekurtsioa jar dezake, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

14. oinarria. — Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin

1. Foru-dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin (Bizkaiko Foru Aldundiak berak ematen dituenekin izan ezik).

2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarretakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin bat eginda (finantzaketa propioa barne), inolaz ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

3. Dirulaguntza hau ez da estatuko laguntzat hartzen, EBFTren 107. artikuluko 1. apartatuan ezarritakoaren arabera, ez baititu aldatzen Europar Batasunean trukaketarako eta lehiarako baldintzak interes erkidearen kontra.

IV TITULUA

DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOA

15. oinarria. — Dirulaguntzaren ordainketa

1. Deialdi hau ebazten duen foru-agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik hamar egun baliodunera onuradunak ez badio berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten, ulertuko da onuradunak onartu egin duela, eta Euskara Zerbitzuak dirulaguntzaren zenbatekoaren ordainketa izapidetzen hasiko da, Ogasun eta Finantzen Foru Sailean; horretarako, onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko.

Hala ere, onuradunen batek edo batzuek emandako dirulaguntzari uko egiten badiote, uko horrek ez du inola ere ekarriko deialdi honen ebazpenaren baldintzak aldatzea.

2. Dirulaguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

16. oinarria. — Hartzailearen ekimenez egindako itzulketa

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako dirulaguntza, foru-erakundeak aurretik hala eskatu gabe.



Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza benetan itzultzen den arte sortu-tako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Foru-dirulaguntza bat onuradunak berak eskatuta itzultzeko, ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli nahi den dirulaguntzari erreferentzia eginda.

3. Dirulaguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio dirulaguntzaren kudeaketaz arduratzen den Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Euskara Zerbituari.

17. oinarria. — *Justifikazioa egiteko epea eta era*

Foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen onuradunek honako konpromiso hauek hartuko dituzte:

1. Jarduera 2026ko ekitaldian egin behar dute oso-osorik eta proiektuaren emaitza publikoaren esku edo merkatuan eskuragarri jarri beharko dute urtea bukatu aurretik.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzei buruzko Erregelamenduko 57. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailean justifikatu behar da proiektua egin dela, hura emateko oinarrizkoak izan ziren baldintzak betetzen direla eta diruz lagundutako proiektuaren aurrekontu araztuko gastua nola aplikatu den; horretarako, zenbait agiri aurkeztu behar dira egoitza elektronikoa. Agiri guztiok aurkezteko azken eguna 2027ko otsailaren 26a izango da (hori barne). Aurkeztu beharrekoak hauek dira:
 - a) Diruz lagundutako jardueren nondik norakoei buruzko memoria, bertan honako hauek zehaztuta: noraino garatu diren jarduerak, bai eta diruz lagundutako proiekturako erabili diren giza baliabideak eta baliabide materialak ere. Edukien eguneraketa egin behar duten proiektuen kasuan, dagoeneko egingutako eguneraketei gehi etorkizunean egiteko planifikatutakoei buruzko informazioa gehitu beharko dute.
Halaber, memorian sartu behar dute genero-perspektibatik proiektuari buruzko informazio garrantzitsua.
 - b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena:
 - 1) Proiektuari egotzitako diru-sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
 - 2) Gastu-partida bakoitzean, dirulaguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
 - 3) Gastuen jatorrizko frogagiriak edo haien fotokopiak. Frogagiriok aurrekontu araztuaren kontzeptuei buruzkoak izango dira. Aurreko horiekin batera frogagiri eta faktura guztien zerrenda ordenatua ere aurkeztu beharko da, zenbatekoa eta aurrekontuaren zein atali dagokien zehaztuta.
 - 4) Dirulaguntzen, laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen zerrenda zehatza, eta, hala badagokio, finantzaketa propioarena ere bai, baldin eta halakoen bidez finantzatu bada diruz lagundutako jarduera; xehetasun hori egoitzan dagoen ereduaren arabera egingo da, partida bakoitzari dagokionez.
 - c) Baldin dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen berezko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopurua baino, gutxienez ere hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu



beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri be-reziengatik, merkatuan ez badago behar beste entitate ondasun edo zerbi-tzuok hornitu edo egiten dituenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzen artean aukeratzeko, efizientzia- eta ekono-mia-irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren-beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

- d) Hainbat entitatek lankidetzan egindako proiektuen kasuan, aurrekontuan jasotakoa kontuan hartuta aurkeztuko dira frogagiriak.
- e) Fakturen eta berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako epeetan egindako ordainketen euskarri diren dokumentuak.
- f) Hala badagokio, egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen, ikus-entzunezko eta informatikako materialen aleak eta beste edozein motatako agiri grafikoren aleak eman behar direnean, aleo-tan erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza eman duela. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 18. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorruta. Betebehar hori laguntza eman zaiela jakinarazi ondoren egindako jardueri bakarrik dagokie.

18 oinarria. — Dirulaguntzen onuradunaren beste betebehar batzuk

Onuradunek betebehar hauek ere izango dituzte.

- a) Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibok edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea Euskara Zerbitzuari.
 - b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea Euskara Zerbi-tzuari, idatziz. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarrai-pena egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
 - c) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari nahiz Azkue Fundazioari laguntza ematea, hala eskatzen bazaie, eta egin beharreko proiektuaren gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
 - d) Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.
 - e) Editatutako material guztietan eta dirulaguntza jaso ondoren egindako jendau-rreko agerpen guztietan Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horre-tarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-irudiak ezarritako elementuak bali-a-tuko dira nahitaez, bai eta euskararen txantxangorriarena ere, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Ekintza honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du» edo «Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekin-tza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».
- Bizkaiko Foru Aldundiaren babesak ikusgai egon behar du produktuaren leku na-barmen batean (webgunearen hasierako orrian, aplikazioaren menu nagusian, produktuen karatulan...).
- f) Onuradunek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako agerpen publiko orotan, eta EAEko hizkuntza ofizial biak erabili behar-ko dituzte dirulaguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundean, bai euskarri grafikoan bai ikus-entzunezko komunikabideetan (era guztietako ira-garkiak, kartelak, liburuxkak...).
 - g) Dirulaguntza jaso duen proiektuaren kanpoko publizitate eta jakinarazpen guz-tiak gutxienez euskaraz egitea.



- h) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- i) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen zaintze, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialean.
- j) Proiektua garatzen ari den bitartean hizkera sexistarik ez erabiltzea sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan (idatzietan, irudietan, eta abarretan), eta sortzen den pertsonen buruzko edozein estatistiketan datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 3. artikulua.
- k) Egiatzatzea, hala dagokionean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragin-garrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, justifikazioarekin batera, betebeharrak hori bete-tearen erantzukizunpeko adierazpena bete beharko da.
- l) Hala badagokio, sexu-askatasunaren eta laneko osotasun moralaren aurkako delituak eta beste jokabide batzuk saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dira, bereziki sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena azpimarratuz, eremu digitalean egindakoak barne.
- m) Enpresen kasuan, onuraduna behartuta dago enpresa-deslokalizazioan ez erortzera, martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- n) Dirulaguntza jaso duten webgune eta gailu mugikorretarako aplikazioek bete egin beharko dituzte 2018ko irailaren 7ko 1112/2018 Errege Dekretuko 5. eta 6. artikuluetan sektore publikoaren webgune eta gailu mugikorretarako aplikazioen irisgarritasunari buruz ezarritako irisgarritasun-irizpideak.
- ñ) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduko 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.
- o) Deialdi honi dagokionez, foru dirulaguntza baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauko 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamenduko 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak. Lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren %90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

Diruz lagundutako jarduera osorik edo zati batean onuradunarekin lotutako pertsonen edo erakundeekin gauzatzea hitzartzen denean, beharrezkoa izango da:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea. Horretarako, onuradunak gutxienez ere hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza, aldez aurretik, non eta azpikontrataturako jardueren ezaugarri bereziak direla-eta ez dagoen merkatuan behar beste entitate halako jarduerak eskaintzen dituenik, edo non eta gastua ez den egin dirulaguntza eskatu aurretik.
2. Aldez aurretik organo emailearen baimena lortzea.

**19. oinarria. — Itzulketa**

1. Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta foru-dekretu honetan ezarritako betebeharren bat edo batzuk betetzen ez badira edo Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, besteak beste:

- a) Dirulaguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltsutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkututzen direnean.
- b) Xedea, jarduera, proiektua edo dirulaguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.
- c) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada.
- d) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuak eskaera egin ondoren.
- e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- f) Foru dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

Halaber, itzulketaren arrazoi izango da enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa, gaia arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz.

2. Dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirua itzultzeko prozedura dirulaguntzak arautzen dituen araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

20. oinarria. — Datu pertsonalen babesa

Aplikatu beharrekoa izango da Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta aurrekoetan xedatzen ez denerako edo aurrekoen ordezkari aplikatu beharreko gainerako araudia.

21. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetako dirulaguntzak emateko 2026. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

- a) Ehun eta hogeita hamabost mila euro (135.000 euro), merkataritza-sozietate, kooperatiba sozietate, enpresaburu indibidual eta profesionalentzat, 2026ko ekitaldiko G/0406/335106/44300_2008/0040 aurrekontuko partidaren kargura.
- b) Hirurogeita bost mila euro (65.000 euro), irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuentzat, 2026ko ekitaldiko G/0406/335106/45100_2008/0040 aurrekontuko partidaren kargura.

Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 43. artikuluen 4. eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru-diputatuaren foru-agindu bidez edo euskara zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, deialdia ebatzi baino lehen, aldatu ahal izango da. Erabilgarri dauden kredituen behin betiko adierazpena eta kredituen banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, gastu-espedituekin egin beharreko aldaketak egin ondoren, baina argitaratze horrek ez du ekarriko ez eskaera berriak aurkezteko epea zabaltzerik, ez ebazteko beste epe bat zenbatzen hasterik.



2. Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauko testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru-dekretu honen babespean emaniko dirulaguntzak baliodun izateko baldintza bat bete beharko da: dagokion ekitaldian foru-dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Halakorik ez bada, baliorik gabe geratuko dira dirulaguntza horiek.

3. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.